

**TOBERA MUSIKA ESKOLA**

2020/2021 eskolarako itzulera

TOBERA Musika- eta Dantza-eskolan



Eusko Jaurlaritzak ez du musika-eskolen jarduera bere araudi eta protokoloetan zehazten. TOBERA bazkide den Euskal Herriko Musika-eskolen Elkartetik Hezkuntza Sailari musika-eskolak kontuan izateko eskatu zaio eta horretan jarraitzen dugu, gure jarduera legerian ager dadin. Esan gabe doa inolako laguntzarik ez dela jaso, ez orientazio-mailakorik, ez ekonomikorik, ez bestelakorik.

Gutziz ezohikoa den ikasturte honi buruz Eusko Jaurlaritzak argitaratu duena hemen dago: <https://www.euskadi.eus/koronabirusari-buruzko-informazioa/web01-s2hhome/eu/>

Era berean, honako txosten hau osatzeko, kontuan hartu da TOBERA Musika- eta Dantza-eskolak uztailan egindako eta zuei guztioi bidalitako kontingentzia-plana, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak argitaratutako “EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO IKASTETXEETAN KORONABIRUSAREN(SARS-CoV-2) AURREAN ZER-NOLA JARDUTEKO PROTOKOLO OROKORRA. 2020-2021 IKASTURTEA” izenburuko txostenetik ateratako zenbait ideia eta horien egokitzapenarekin gure errealitatera jaso zituena.

Gainera, 2019/2020 ikasturtearen bukaerako esperientzia (familiekin egindako ebaluazio-bilerak) oinarri ona da honako ikasturtea plangintzatu eta antolatzeari begira, bistan denez.

Aurrez aurreko hezkuntzaren aldekoa da apustua.

Ikasleei banan banakako arreta emango diegu.



Tenperatuta eta sintomak.

Banakako erantzukizunari helduz, tenperatura hartzea gomendatzen da etxean bertan, ikastetxera joan aurretik, eta ezin izango dute joan sukarra duten ikasleek (>37°C) eta COVID-19arekin bateragarriak diren sintomak dituztenek (sukarra, eztul lehorra, eztarriko mina, arnasa hartzeko zailtasuna, usaimena eta dastamena galtzea –guztiak edo aurreko sintoma hauetako batzuk izan litezke–). Horrelakorik sumatuz gero, etxean gelditu eta beren ohiko osasun-zentzora deitu beharko duzue ikasleek edo beren familiekin.

Sintomak zeintzuk dira? → Edozein larritasuneko arnas infekzio akutuen (aguda) koadro klinikoaren duen edozein pertsona, besteak beste, sukarra, eztula edo aire faltaren sentzarazioa duena. Beste sintoma batzuk ere, hala nola odinofagia (jaterakoan mina izatea), anosmia (usaimena galtzea), ageusia (dastamenaren zentzua galtzea), giharretako minak, beherakoak, min torazikoa edo zefaleak, COVID-19 bidezko infekzioaren susmoaren sintomatizat har daitezke irizpide klinikoaren arabera.

Ez dira ikastetxera joango COVID-19 diagnostikoagatik isolatuta dauden ikasleak edo etxean berrogeialdian daudenak (ezta langileak ere, noski), sintomak dituen pertsonaren batekin edo COVID-19 diagnostikatuta duenen batekin kontaktu estua izan dutelako.

Badaude COVID-19arekiko zaurgarriagoak diren osasun-baldintzak dituzten ikasleak: adibidez, gaixotasun kardiobaskularrak, diabetesa, biriketako gaixotasun kronikoak, minbizia, immunodepresioa edo hipertentsio arteriala, e.a. dutenak.

Musika-eskolan sintomatologia agertuz gero, hau izango da jarraibidea:

Ikaslea

a. Isolamendu-gela batera joango dira (maskara jarrita) ikaslea bera eta musika-eskolako langilea. Gela honek higie- eta aireztapen-neurri egokiak beteko ditu, eta kasu susmagarri batekin erabiltzen den bakoitzean desinfektatuko da. Zuzendaritzari jakinaraziko zaio, eta hark Prebentzio-zerbitzuko Arlo Medikoari jakinaraziko dio.

b. Ikaslearekin joandako pertsonak neurriak zainduko ditu: distantzia eta maskara. Sintomak dituen ikasleak eta hari isolamendu-espaziora laguntzen dion pertsonak erabiliko dute musukoa, biek.

c. Familiarekin harremanetan jarriko da, etxera eramateko.

d. Familia bere osasun-zentroarekin harremanetan jarriko da, haren jarraibideak betetzeko.

e. Eragindako pertsona kasu susmagarritzat jotzen bada, etxean isolatuta egon beharko du proba diagnostikoen emaitzak izan arte, Osasun Sailaren COVID-19ren Zaintza Epidemiologikoko Protokoloan adierazitakoaren arabera.

f. Normalean, kasuaren emaitza diagnostikoa lortu arte, ez da kontaktu estuei buruzko ekintzarik abiaraziko, eta irakaskuntza-jarduerak normaltasunez jarraituko du, higie- neurriak zorrotzuz. Kasua berresten bada, kontaktuen azterketa egingo da hezkuntza-ingurunean eta hezkuntza-ingurunetik kanpo, kontaktuak ezarrita dagoenaren arabera identifikatuz, sailkatuz eta haien jarraipena eginez.

Kontaktu estua: Bizikidetzaren egonkorreko taldearen eremuan (EAEEn LHko 2. maila arte), ikasle guztiak harreman estuzat hartuko dira. Gainerakoan, sintomak zituen kasu batekin leku berean 2 metro baino gutxiagoko distantziara, babes neurri gabe 15 minutuz gutxienez egondako pertsona da.

g. Larritasun- edo arnasteko zailtasun-sintomak izanez gero, 112 zenbakira deitu behar da.

Agertokiak.

2020-2021 ikasturtearen hasierari begira, eta unean uneko osasun-egoeraren arabera, beharrezkoa da kontuan hartzea, beste edozein ikastetxetan bezala, TOBERA Musika- eta Dantza-eskolan ere, funtsean hiru agertokitan garatu ahal izango diren hezkuntza-jarduerak:

—1. agertokia: modalitate presentziala. Kasu honetan, Osasun Sailak ezarritako segurtasun- eta osasun-neurriak errespetatu eta bete behar ditugu.

—2. agertokia: aurrez aurreko jarduera eta online jarduera uztartzen dira.

Kasu horretan, hainbat aukera ezarri ahal izango dira:

1. Eskolak aldi berean jarraitzea, bai ikasgelatik, bai ikastetxetik kanpo zuzenean.
2. Ikasleen jarduera presentziala eta online jarduera egun edo asteka txandakatzea.
3. ...

—3. agertokia: hezkuntza-jarduera ez presentziala (telematikoa).

Kasu horretan, eta berriz ere Osasun Sailak ezartzen dituen neurriekin bat etorriz, ikastetxea antolatzeko beharrezkoak diren jarraibideak eta neurriak helaraziko dira, haien jardueren jarraipena bermatzeko.

Irakasle eta langileon borondatea dago, langilea bera etxealdian egon behar bada ere, hala jokatzeko eragozten dioten sintomak ez badauzka, etxetik jarraituko duela bere lana egiten, musika-eskolaren alde.


Modalitate batetik bestera bat-batean pasatzeko arriskua dago. Horretarako prest eta prestatuta egon beharra daukate ikasleek eta familiarek: eskola-materiala gainean eraman beti, ikasturte osoko fitxak eta liburuak eskura/eskuragarri, e.a.

Ahal den guztietan, musika-eskolaren jarduerarekin jarraituko da, telematikoki izan behar bada ere (partzialki edo erabat). Berrogeialdian dagoen irakasleak telematikoki emango ditu eskolak. Ikasle bat berrogeialdian baldin badago (ez gela osoa) –nahiz eta PCR probak negatibo eman–, irakasleak ahalegina egingo du etxean dagoen ikasle horri segimendu akademikoa egiteko (telematikoki), moduak familiarekin adostuta (egoeraren jarraipena, etxerako lanak bidali...). Gela osoa baldin bada berrogeialdian dagoena, berdin, noski.

Familiei galdetu zaizue eskola-modalitatearen inguruan, balizko etxealdiko 3. hilabetetik aurrera. Hau izan da zuen erantzuna (Zuzendaritza-batzordeak ebatziko du, kasua gertatuz gero):

Eman zure iritzia (eskolak etxetik luzaroan eman beharko balira) / Elige opción (en caso de confinamiento prolongado):

25 erantzun



- 1. aukera: Eskolak telematikoki ematen jarraitzea / 1.- Continuar con la impartición telemática de las clases.
- 2. aukera: Eskolak etetea / 2.- Suspensión de las clases.

Bistan denez, TOBERAn egiten dugunak eragina izango du ingurunean, eta inguruneak ere eragina izango du gure egunerokoan. Beraz, lotuta egin beharko dugu lan guztiok: Udalak, herri-eskola eta haur-eskolak, eskolaz kanpoko jarduerak ematen dituzten elkarteak, osasun- eta gizarte-langileak eta -zerbitzuak, e.a.

Osasun Sailaren webgunean atal bat propio: <https://www.euskadi.eus/covid-19-koronabirus-berria/>

Higiene-eta prebentzio-ohiturak.

Musika-eskolan jar litezkeen informazio-kartelei kasu egin. Pantailak, musuko berrerabilgarriak (ikasle bakoitzari bana emango zaio, doan). Xaboi edo gel hidroalkoholkoa. Lixiba-disoluzioa. Papera. Tapa eta pedala duten paperontziak. Eskularruak erabiltzea ez da komeni orokorrean, baina bai garbiketa-lan sakonetan eta fluidoak ukitzean. Baliabideak zuzen erabili (alferrik da bestela).

● Maskara edo musukoa erabiltzea:

Musukoa, guztiok, beti eta etengabe erabili beharra (nork bere musukoa edo maskara ekarri beharko du etxetik, musika-eskolak, esan bezala, aurrenekoa doan emango badie ere ikasleei).



- Arau orokor gisa, ikastolako langile eta ikasle guztiak nahitaez erabili beharko dute espazio guztietan eta une oro (6 urtetik gorako ikasleak; 6 urtekoak barne).
- Irakasleek maskara erabili behar dute beti, baita bizikidetzat-talde egonkorretan ere.
- Maskara nahitaez erabili beharko da, nahiz eta ikasleak eserita egon eta 1,5 metroko pertsonen arteko distantzia gorde. Salbuespena haizezko musika-tresnena da.
- Mugimendua, kantua edo antzekoak eskatzen dituzten irakaskuntza-jardueren kasuan, maskara erabili eta pertsonen arteko distantzia mantendu beharko da.
- TOBERAk banatu(ko) dituen maskara homologatuak erabili beharko dira musika-eskolan edo maskara kirurgikoak. TOBERAk banatutakoak berrerabilgarriak dira; garbitu daitezke.
- Elkarrekiko 1,5 metroko distantzia: ikasleen artekoa eta irakasleen eta ikasleen artekoa. Ahal dela (Udalek TOBERAren esku utzitako zenbait espaziok ez dute hori ahalbidetzen).
- Eskuak maiz garbitu/garbiarazi. Irakasleek, ikasgelan sartu eta irteterakoan, eskuak garbitu behar dituzte eta, ahal dela, eskuak begietara, sudur-zuloetara edota ahora ez eramatea kontrolatuko dute musika-eskolako irakasleek.

Prebentzio pertsonaleko neurri garrantzitsuenetakoa da hau.

Eskuetako higiena maiz eta zehatz-mehatz egin beharra dago, 40 segundoz gutxienez, ura eta xaboia erabilia, eta, ezinezkoa bada, 20 segundoz erabil daiteke gel hidroalkoholkoa. Kontuan izan behar da eskuek zikinkeria nabarmena dutenean gel hidroalkoholkoa ez dela nahikoa, eta ura eta xaboia erabili behar direla.

ESKUETAKO HIGIENEA (40 segundo ura eta xaboia / 20 segundo gel hidroalkoholkoa):

- Ikastetxera iristean
- Doministiku egin ondoren

- Lekua edo jarduera aldatzean
- Bazkaldu aurretik eta ondoren
- Komunera joan aurretik eta ondoren
- Zikinak dauden bakoitzean

ARNASKETA:

- Eztul edo doministiku egitean, ahoa eta sudurra ukondoa tolestuta estali.
- Erabili eta botatzeko zapiak erabili, mukiak kentzeko eta, erabili ondoren, tapa eta pedala dituen paperontzi batera botatzeko. Oro har, hondakinak kontu handiz bota zakarrontzietara, eta ez inoiz utzi mahaietan edo lurrera botata.

Salbuespenak:

- arnasketa-zailtasuna duten eta maskara erabiltzeagatik larriagotu daitezkeen pertsonak
- desgaitasuna duten edo maskara kentzeko autonomoak izatea eragozten dien mendetasun-egoera duten pertsonak
- erabilera bideraezin bihurtzen duten jokabide-aldaketak dituzten pertsonak
- pertsonak beren bizilekuan daudenean edo bakarrik daudenean.

Ezintasun edo eragozpen horiek, ahal den neurrian, segurtasun-distantziarekin eta langileek norbera babesteko ekipamenduen erabilerarekin konpentsatuko dira.

- Norberak bere materiala ekarri; musika-eskolarena ahalik eta gutxien erabili.
- Ukipen-ekintza oro saihestuko dugu musika-eskolan.
- Espazioak:
 - Beharrezko espazioak baino ez erabili. Material eta altzari gutxien ukitzen eta erabiltzen saiatu. Kontuz: interruptoreak, mahaiak, telefonoa, manillak...
 - Ikasle bakoitza beti leku berean eser dadila (aulki eta mahai bera; kokapen finkoak). Irakasle bakoitzak apuntatuko du non esertzen den nor; informazio hori beharrezkoa izango da kasu positiboren bat agertuz gero (kontaktu estuak identifikatu eta lokalizatzeke). Ikasleek atril bera erabil dezaten saiaturako gara.
 - Barneko desplazamenduak murriztu/ekidin.
 - Aire libreko jarduerak sustatuko ditugu eguraldiak uzten duen bitartean: Segurako goialdeko terraza, inguruko plazak eta parkeak...
- ▶ Behar ahala, higienerari eta portaerari buruzko prebentzio-neurriak gogorarazteko saioak egingo ditu TOBERAk geletan ikasleekin (bereziki, hasiera batean, ohitura automatikoak eragin arte).

Aireztapena.

Bost minutuko aireztapena ahal bezainbestetan (hobe 10 minutuz)

- ikasleak iritsi baino 5-10 minutu lehenago
- eskola-saio bakoitzaren amaieran (20 minutu bakoitzeko 5 minutu gomendatzen dira)
- atsedenaldi(et)an

- lanaldia amaitzean
- 1. Baldintza meteorologikoen eta eraikinak ahalbidetzen dutenean, leihoak ahalik eta denbora gehien irekita edukitzea.
- 2. Ateak ahal den heinean irekita egongo dira (elkarri *molestatu* gabe).
- 3. Aire freskoaren hornidura handitu behar da, eta aire girotua izanez gero, ez da erabili behar barruko airearen birzirkulazio-funtzioa. Ahal dela, berogailua eta aire girotua ez dira erabiliko.

Jende-pilaketak saihestu.

Espazioa ez da arazo TOBERAn, oro har (Zerainen dago arazoa).

Zerainen eskolak emateko tokia alda liteke, baina etengabe okupatuta utzi gabe (beste jarduera batzuetarako ere erabiltzen delako: zumba, yoga, abesbatza...). Armairua, mahaia... erabil litezke. Espazioa, ordea, erabili bai, baina okupatu ez.

Seguran: 1. solairu osoa izango da musika-eskolak erabiltzeko (areto nagusia eta komunak barne). Irisgarritasuna bermatuta dago.

Zegama: kultura-etxean 5-6 gela erabilgarri (areto nagusia barne) eta ludoteka ere bai. Bi espazioetan daude komunak eta irisgarritasuna bermatuta dago.

Musika-hizkuntza eta Dantza. Ikasleek kanpoaldean itxaron dezatela; irakaslea joango da aldiro beren bila, ikasgelara laguntzeko. Prozedura hori barneratuta dagoenean, ikasle-talde batek emango dio bidea hurrengoari. Ikasleei adieraziko zaie zein den 'itxaroteko gunea', musika-eskolaren barruan dauden ikasle-taldeak irten arte zain egon behar diren lekua, alegia.

Sarrera eta irteera mailakatuak eta desberdinak, ahal bezainbeste. Sartu-irtenetan, noranzko desberdinak erabiltzen saiatuko da TOBERA eta, beste ikasle batzuen joan-etorriarekin kointzidituz gero, hori saihesteko moduak pentsatuko dira: ordutegiak pixka bat aldatu, e.a. Beharrezkoa bada, zirkulazioaren noranzkoak seinalatuko ditugu zintaz. Dena den, taldeak txikiak direnez, zenbait ohitura beraiengan eragitea ez da zailegia izango.



Ikasleen senideak, tutoreak, zaintzaileak edo laguntzaileak ez daitezela musika-eskolaren eraikinean sartu; kanpoan itxaron dezatela (irakaslearekin egon nahi izanez gero, aurrez abisatu, mesedez).

Musika-hizkuntzako aurkezpen-bilerak aurrez aurre edo presentzialki egingo dira, baina bakarrik aurreneko aldiz musika-hizkuntzan arituko diren ikasleen familiekin (Segurako 1B taldea eta Zegamako 2A taldea).

Musika-taldeak edo konboak (trikiti/pandero-taldea, txistukoak...) aurrerago abiatuko ditugu, bilakaera aztertu ondoren eta hasierako fase hau egonkortuta dagoenean.

Ikastegiko espazio komunetan pertsonak elkartzeari saihestuko dugu (elkarrizketak pasabideetan, e.a.); edukiera mugatuko da, bilerak *informalak* 10 lagunetik gorako pertsona-elkartzerik gabe egingo dira, eta pertsonen arteko distantzia mantenduz eta maskara jantzita. Horrek ez du esan nahi eskola-praktikarekin lotutako bilera jendetsurik egin ezin litekeenik, betiere esandako neurriak errespetatuz gero.

Kontaktuak mugatu:

- Bizikidetzeta talde egonkorrek/espazioak: beste talde batzuekin elkarreraginean aritu gabe, harremanak mugatzeko eta, kasuren bat gertatuz gero, kontaktuak azkar eta errazago arakatzeko.
- Ez partekatu komunik, eta itxaroten den bitartean pertsonen arteko distantzia mantendu. Komunak gela-orduetan erabiltzea baimenduko da ikaslearen beharraren arabera, eskola baten eta hurrengoaren arteko kontaktuak murrizte aldera.
- Igogailuan banaka, eta ezinbestekoa bada soilik.
- Saihestu ukipen-jolasak eta ariketa fisikoak dakartenak.



Garbiketa eta desinfekzioa:

* Ikasle batetik bestera eta talde batetik bestera → musika-eskolako irakasleak berak egingo du lan hau –edo ikasleek eurek–, baita materialarena ere (musika-tresnak, ordenagailuak, material suntsikorra, tresneria... garbitzea). Haizezko musika-tresnen kasuan, zorura eroritako listua ere garbituko da, noski.

* Egun batetik besterakoa → udalen zeregina izango da eta bermatuta dago.

Komunikazioa: alde guztien artekoa.

Iturri ofizial eguneratuetara jo bakarrik.

Guztion ardura da bermatzea jarduera-protokoloari eta haietan ezarritako prebentzio-, higiene- eta osasun-sustapeneko neurriei buruzko informazioa musika-eskolako hezkuntza-komunitate osoak ulertzen eta aplikatzen duela.

Familiei informazio-oharrak prestatu(ko) zaizkizue (txosten hau horren adibide), eta familiei informazio egokia eman(go) die TOBERAk berrogeialdiko, eskuen higieneko eta arnas-higieneko neurriak betetzeko, telelanerako, bai eta COVID-19rekin bateragarriak diren sintomak garaitzeko seinaleak ere (aurreko ikasturtean bidalitakoak dira esandakoaren adierazgarri, edo hemen jasotako edukiak ere bai). TOBERAren egoitzetan jarrita egon litezkeen informazio-kartelei erreparatu.

Familiengandiko informazioa ere ugaria izatera animatzen zaituztegu.

Familien inplikazioa ezinbestekoa da. Eskerrik asko.

Laguntza psikosozialeko beharrei erantzuten.

Emozionalki erantzuna emango diegu gure ikasleei. Gaia naturaltasunez tratatuz; ez ekidinez. Eztabaida sustatu. Beren iritzia entzun. Hezkuntza arautuan landuko diren gaiak dira, baina hona hemen TOBERA-n identifikatu ditugun zenbait aspektu:

- Zenbait alderdi orokorri erantzun behar zaie, besteak beste: ikasleei gaixotasunaren inguruan dituzten izu eta estutasunak murrizten lagundu, eta beren bizitzetan bigarren mailako edozein inpakturi aurre egiteko duten gaitasuna bultzatu. Halaber, kontuz ibili behar da birusaren eraginpean egon ahal izan diren ikasle eta langileak ez estigmatizatzeke.
- Estigmatizazioaren eta diskriminazioaren aurkako prebentzio- eta borroka-neurriak hartu behar dira, birusaren eraginpean egon direnen aurreiritzirik eta bazterketarik egon ez dadin.
- Bizi izandako egoera bereziak baliteke zailtasunen bat eragin izana eremu emozionalean, eta hura kontuan izan beharko da, irakasle guztiek betetzen duten tutoretza-eginkizunean.
- Familiarekiko edo legezko tutorekiko eta ikasleekiko komunikazioa lehentasunezkoa izango da arrisku-kasuetan, baina baita gainerako ikasleekikoa ere. Beraz, tutore-lanaren esparruan, komeni da zeharkako gaitasunen garapenarekin lotura oso estua duten honako eremu hauetako batzuk planteatzea: izaten jakitea, harremanetan jarduten jakitea eta ikasten ikastea.
- Ikasleak beren galderak eta ardurak eztabaidatzera animatu behar dira. Hainbat erreakzio izatea normala dela azaldu behar zaie, eta zalantzarik edo kezkarik badute, irakasleekin hitz egitera animatu. Informazioa zintzotasunez eta adinera egokituta eman behar diegu. Ikasleak gidatu egin behar dira beren ikaskideei nola lagundu eta bazterkeria eta intimidazioa nola ekidin jakiteko.

Azken ohar orokor batzuk:

1. Irailean, ikasle bakoitza zer maila akademikotan dagoen behatuko dugu TOBERAn → edukiak errekuperatu edo indartu.
Zaugarritasuna: ekonomikoa, osasunezkoa, teknologikoa, bazterkeria-arriskua, akademikoa... kontuan hartu nahi ditugu. Zuek laguntzeko prest gaude.
2. 2020ko urrian: iazko diploma-azterketa egiteko txanda hitzartuko dugu hala dagokien ikasleekin.
3. Iniziatiba izan hobekuntzak detektatzeko, proposatzeko eta inplementatzeko.
4. Zentzu komuna eta erantzukizuna. Hau guztiok eragiten gaitu eta guztion gaia da.
5. Jarrera eraikitzailea, ulerkorra eta ahal bezain baikorra izan dezazuen erregutzen dizuegu ikasle eta familiei.

